

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### Onespena ematea 2019/2020 diru-laguntzen plan estrategikoari

Udalbatzak, 2018ko abenduaren 28ko osoko bilkuran, ondokoa erabaki zuen:

Lehenengoa. Donemiliagako Udaleko diru-laguntzei buruzko 2019/2020 plan estrategikoa onestea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn eta udaleko iragarki oholean argitaratzea.

#### Donemiliagako Udaleko diru-laguntzei buruzko 2019-2020 plan estrategikoa

##### Hitzaurrea

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-laguntzak eman nahi dituzten herri udalek diru-laguntzen plan estrategikoa onartu behar dute, eta honako hauek zehaztu behar dituzte bertan: diru-laguntzen helburuak eta haien bitartez lortu nahi diren ondorioak, horiek gauzatzeko epealdia, aurreikusten diren kostuak, eta finantzabideak. Plana gauzatzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzen orokorra, beste aurrerapauso bat da ekonomia sistema bikaintzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legearen printzipioetako bat gardentasuna da. Horrek, legean ezarritako beste hainbat tresnarekin batera, zuzenean dakar diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea.

Horren harira, diru-laguntzen gainean informazio zabalagoa izateak merkatuari eragin ahal dizkion distortsio eta oztopoak ezabatzeko bide emango du, eta herri administrazioen jardunak osagarriak eta koherenteak izatea erraztuko du, bikoizketak ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko diru-laguntzen plan estrategikoa egin da. Tresna hori politika publikoak antolatzeko da, urte anitzekoa izango da eta diru-laguntzak sortu aurretikoa da.

Horregatik, udal honek diru-laguntzen plan estrategikoa onartu du. Hona hemen artikulua:

##### I. kapitulua - Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua

Udal honen 2019-2020 aldiko diru-laguntzen ezarpena plan honetan jasotakoaren arabera egingo da.

#### 2. artikulua

Plan honetan jasotako diru-laguntzak eman ahal izateko, derrigorrezkoa da urteko udal aurrekontuetan esleipenak egitea, eta oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak onartzea.

Jardun lerro bakoitzerako ezartzen diren aurrez ikusteko moduko kostuak aldatu ahal izango dira aurrekontua gauzatzeko udal arauan urtero ezartzen den gastuaren aurrekontu lotura mailaren arabera.

#### 3. artikulua

Diru-laguntzak emango dira baldin eta aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzen badira. Hortaz, onartzen diren aurrekontu esleipenak eta horiek ematea arautzen duten oinarriak aipatutako helburuetara moldatu beharko dira unean-unean.

#### 4. artikulua

Diru-laguntzen plan estrategikoa onartzeak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

II. kapitulua. Diru-laguntzen onuradunak eta diru-laguntzak ezarriko diren arloak

#### 5. artikulua

Udalak diru-laguntzak emango ditu deialdi publikoaren edo lankidetzaren bidez, pertsonen, elkarleen edo erakunde pribatuen alde, onura publiko edo gizarte intereseko jarduerak egitea sustatzeko edo tokiko eskumenari dagozkion xede publikoak lortzea sustatzeko.

#### 6. artikulua

Udalak urtero ezarriko ditu diru-laguntzak bere eskumen arloetan:

- Gizarte ekintza: genero berdintasuna, gazteria, umeak, asoziazionismoa eta herritarren parte-hartzea, gizarte larrialdia eta lankidetzaren hiru arloak, etab.

- Kultura: musika, arte plastikoak, etab.

- Kirolak: Kirolak, kirol asoziazionismoa, etab.

- Euskara: Hizkuntza sustatzea, ikertzea.

- Turismoa: Udalerria ezagutaraztea.

- Administrazioekin eta organismoekin lankidetzaren arloak.

III. kapitulua. Gizarte ekintza arloko laguntzak

#### 7. artikulua

Gizarte ekintzaren arloan, udalak honako diru-laguntza larrialdietan ezarriko ditu planaren indaraldian:

##### A) Genero berdintasuna:

a) Helburuak: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako programak garatzeko jarduerak gehitzea, emakumeek lana izatea sustatzea, laneratzea eta lanean mantentzea sustatzea bizitzaren alderdi guztietan berdintasuna lortzen saiatuz, familiako eta laneko bizitza kontziliatzea erraztuz eta bizi kalitatea hobetuz. Baita emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egindako jarduerak ere. Emakumeak gizartean prestakuntza jasotzea lortzea eta aisialdi eta denbora liberarako jarduerak proposatzea emakumeen bizi kalitatea gehitzeko.

b) Lortu nahi direnak: Emakumeentzako udalerrian edo udalerritik kanpo eskainitako prestakuntza ikastaroak eta lanerako jarduerak gehitzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 1.133,67 euro urtean, 2.200,00 euro plan estrategikokoaren indaraldian zehar. Ekintza horietan Arabako Lautadako Kuadrillara transferentzia egingo da.

d) Finantzaioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuaren laugarren kapituluaren kontura.

##### B) Gazteria:

a) Helburuak: Gazteentzako denbora libreko jarduerak, monitoreak eta animatzaileak prestatzeko ikastaroak, udako jarduerak, gazteentzako informazio programak eta arriskuen prebentzioa sustatzea, laneratzea sustatzea, baita gazteen autonomia, emantzipazioa eta ongizatea ere lanean. Udalak antolatutako muralen tailerretan gazteek parte hartzea sustatzea.

b) Lortu nahi direnak: Bizilagun horien hezkuntza prozesua osatzea, gazteak motibatzen dituzten aisialdi jarduerak eskaintzea gazteak garatu ahal izateko eta beraien parte-hartzea bultzatzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 6.630,00 euro urtean, 12.000,00 euro planaren indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuetako 2. kapituluan jasotakoekin, laugarren kapituluaren kargura, baita beste erakunde publikoetako funtsekin ere.

f) Ekintza plana: Monitoreak eta animatzaileak izateko prestakuntza tailerrak antolatzea; gazteen foroak sortzea sustatzea gazteek informazioa jasotzeko eta gazteak elkarrekin harremanetan egotea bultzatzeko; lana eta gainerakoak bilatzeko orientabideak ematea.

C) Umeak:

a) Helburuak: Umeentzako aisialdi jarduerak sustatzea, eskolaz kanpoko ikastaroak antolatzea, baita udalekuak ere. Familiei laguntzak ematea umeak jaiotzen badira: Haur eskolatarako ekarpen ekonomikoak ematea udalei.

b) Lortu nahi direnak: Umeen hezkuntza prozesua osatzea, umeak motibatzen dituzten aisialdi jarduerak eskaintzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 1.100,00 euro urtean, 2.200,00 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluan jasotakoekin, baita beste erakunde publikoetako funtsekin ere.

D) Asoziazionismoa eta herritarren parte-hartzea sustatzea:

a) Helburuak: Udaleko gizarte, kultura, hezkuntza eta kirol elkarteak gehitzea. Elkarteak sustatzeko, funtzionatzeko eta jarduketako jarduerak egitea udalerrian bertan edo udalerriko bizilagunei eragiten dieten jarduerak gauzatzea.

b) Lortu nahi direnak: Elkarteak sortzea eta mantentzea eta jada sortuta dauden elkarteei laguntzea lanekin eta jarduerekin jarraitzeko.

c) Aurreikusitako kostuak: 1.630,37 euro urtean, 3.200,00 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluan jasotakoekin, baita beste erakunde publikoetako funtsekin ere.

e) Ekintza plana: Joera baztertzailak prebenitzeko jarrerak sustatzeko ekintzak eta sensibilizazio ekintzak sustatzeko politika diseinatzea; proiektu jasangarriak proposatzea, udalerriko ezaugarri zehatzei egokitutakoak, eta udalaren jardueran herritarrek parte hartzea sustatzea.

E) Gizarte larrialdiko funtsak, komunitateko lankidetzak/garapena:

Gizarte ekintza alorrean udalak plan honen indarraldian zehar irabazi asmorik gabeko elkarteei, erakundeei, herrialdeei eta/edo pertsona fisikoei diru-laguntzak emango dizkie betiere kolektibo diskriminatuei edo laguntza gutxien dutenei laguntzen baldin badie edo gizarte intereseko edo pertsonen intereseko lanak egiten badituzte. Garapen bidean dauden herrialdeetan elkartasun proiektuak egiteko jarduerak eta sensibilizazio ekintzak gauzatuko dira herritarrentzat herrialde horietako egoerari buruz, irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako diru-laguntzak komunitate proiektuak gauzatzen badituzte eta kolektibo diskriminatuei edo laguntza gutxien dutenei laguntzen baldin badie edo gizarte intereseko edo pertsonen intereseko lanak egiten badituzte.

Onuradunak, zenbaitetan, zehaztuta egongo dira, ekarpenen maiztasuna edo udalerririk elkarrekin duen atxikipena kontuan hartuz. Euskal Funtsaren eta Elikagaien Bankuaren lankidetzak proiektuak ere bideratzen dira.

a) Helburuak: Komunitate proiektuak finantzatzen laguntzea, garatzen dauden herrialdeetan proiektu solidarioak egiteko direnak, harrera proiektuetan herritarren lankidetzeta eta parte-hartzea sustatzea, eta lankidetzeta ekimenak sustatzea, horiei laguntza ematea eta koordinatzea. Pertsonen eta gizartearen intereseko lankidetzeta.

b) Lortu nahi direnak: Proiektuak egikaritzea erraztea. Garatzen dauden herrialdeetan garapen jasangarria sustatzeko proiektuak eta programak egitea, berdintasun irizpideak baldin badituzte. Horretarako, alderdiak lankidetzan ariko dira, komunitate bakoitzeko kulturak eta identitateak errespetatuko dira eta tokiko erakundeek Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin lankidetzeta izatea erraztuko da.

c) Aurreikusitako kostuak: 10.578,88 euro urtean, 21.000,00 euro plan honen indarraldian zehar. Eta hori guztia bateragarria baldin bada egonkortasun eta gastu mugatze helburuekin. Horretarako zenbatekoa udal aurrekontuaren % 0,7 da.

d) Finantzazioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuaren laugarren kapituluaren 231. programaren kontura.

F) Ondarea eraberritzea:

a) Helburuak: Egoitza eta hiri ondarea berreskuratzea sustatzea.

b) Lortu nahi direnak: Eraikin zaharrenak kaltetzea saihestea, eta horretarako higieizinei balioa ematea eta laguntzak ematea eraikinen derrigorrezko ikuskapenak egiteko.

c) Aurreikusitako kostuak: 5.000,00 euro urtean, 10.000 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuen laugarren eta zazpigarren kapituluaren kargura.

G) Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak sustatzea:

a) Helburuak: Nekazaritza eta abeltzaintzako instalakuntzak hobetzeko eta berriak eraikitzeko esku-hartzeei diru-laguntzak ematea.

b) Lortu nahi direnak: Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea sustatzea eta garatzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 1.800,00 euro urtean, 3.600 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuen zazpigarren kapituluaren kontura.

#### IV. kapitulua. Euskara eta kultura alorreko diru-laguntzak

##### 8. artikulua

Euskara eta kulturari dagokionez, udalak diru-laguntza lerro hauek ezarriko ditu plana indarrean dagoen aldirako:

A) Musika:

a) Helburuak: Musika jarduerak bultzatzea eta musika eskolak finantzatzea, eskualdeko estudioekin lankidetzan arituz.

b) Lortu nahi direnak: Herritarren musika eta dantza zaletasuna sustatzea eta horri buruzko hezkuntza ematea, herritarren kultura adierazpide gisa, musikaren hezkuntza eta kultura sustatuta. Udalaren eta udalerrien eta musika eskolen arteko lankidetzeta hitzarmenak sustatzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 3.900,00 euro urtean, 7.800,00 euro planaren indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

**B) Arteak:**

a) Helburuak: Sorkuntza artistikoa sustatzea eta herritarrei hurbiltzea, eta horretarako erakusketak, tailerrak eta topaketak antolatzea, baita pintura eta argazkigintza lehiaketak ere eta ohitura herrikoiak, prestakuntza eta horietaz disfrutatzea bultzatzea.

b) Lortu nahi direnak: Udalerrian erakusketa gehiago antolatzea eta pintura eta argazkigintza lehiaketa mantentzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 2.000,00 euro urtean, 4.000,00 euro planaren indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren jasotakoekin, baita beste erakunde publikoetako funtsekin ere.

e) Ekintza plana: Lehiaketetako parte-hartzaile kopurua, antzerki ikuskizunak eta abar gehitzea udalerrian.

**C) Euskara**

a) Helburuak: Udalerriko bizilagunek euskara ikastea sustatzea eta erraztea, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea bultzatzea, gizarteko alor ezberdinetan euskara erabiltzea sustatzea eta lankidetzan aritzea euskararen hedapena eta erabilera, kultura eta kirola sustatzen duten erakundeekin (Araba Euskaraz, Korrika). Era berean, udalerriko erakunde edo elkarte mailan euskara sustatzea erakundeetan (Udalbiltza). Arabako Lautadako Kuadrillara transferitzea, bera baita Euskararen Zerbitzu Teknikoa emateko arduraduna.

b) Lortu nahi direnak: Herritarrak euskalduntzea eta euskara sustatzea udalerrian eta/edo erakundeetan.

c) Aurreikusitako kostuak: 10.614,49 euro urtean, 20.000,00 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuaren laugarren kapituluaren 335. programaren eta 912. programaren kontura.

**D) Gizarte eta kultura jarduerak:**

a) Helburuak: Udalaren esku-hartzea osatzen duten eta gizarte eta kultura sustapenera zuzenduta dauden programak eta jarduerak garatzea. Jaien arloan, Donemiliagako Udalak udalerriko herrietako zaindari jaiekin eta/edo jai herrikoiekin lotutako jardueretarako diru-laguntzak eman ditzake, eta esparru honetan berak egiten dituen jarduerak osatzen dituzten jai ekitaldietarako ere bai.

b) Lortu nahi direnak: Herritarrek gizarte eta kultura ekimenak dinamizatzea eta horietan parte hartzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 25.700,00 euro urtean, 50.000,00 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen eta beste erakunde publiko batzuen funtsen bidez egingo da, udal aurrekontuaren 334. programaren eta laugarren kapituluaren 338. programaren kontura.

**V. kapitulua. Kirol arloko diru-laguntzak:****9. artikulua**

Kirolei dagokienez, udalak diru-laguntza lerro hauek ezarriko ditu plana indarrean dagoen aldirako:

**A) Kirol jarduerak sustatzea:**

a) Helburuak: Kirol jarduerak bultzatzea udalerrian, kirol jarduerak programatu edo egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuei laguntzea kirol lehiaketak edo ekitaldiak egiteko.

b) Lortu nahi direnak: Udalerrian kirola egiteko behar den materiala erosteak sortutako gastuen zati bat finantzatzea; kirol federazioetako izen-emateak ugaritzea; udalerrri mailan lehiaketa gehiago egitea, bai eta kirol jarduera eta ekitaldi gehiago ere.

e) Aurreikusitako kostuak: 1.600,00 euro urtean, 3.200,00 euro planaren indarraldian zehar.

f) Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuetako laugarren kapituluaren 341. programan jasotakoekin, baita beste erakunde publikoetako funtsekin ere.

B) Kirol elkarteak edo klubak sortzea:

a) Helburuak: Kirol jarduerak programatzen edo gauzatzen dituzten erakunde publikoak edo pribatuak sortzea sustatzea kirol lehiaketak edo ekimenak antolatzeke. Jarduera hitzarmenak eta kirol azpiegitura hitzarmenak egitea beste eskualdeko udalekin.

b) Lortu nahi direnak: Kirola sustatzeko eta kirol jarduerak egiteko erakundeak sortzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 2.000,00 euro urtean, 4.000,00 euro planaren indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen bidez egingo da, aurrekontuaren laugarren kapituluaren 341. programaren kontura.

#### VI. Kapituluua. Turismo alorreko diru-laguntzak

Turismo alorrean udalak plana indarrean dagoen bitartean honako diru-laguntza edo lankidetzak lerroak ezarriko ditu beste erakunde publikoekin, besteak beste Arabako Lautadako Kuadrillarekin.

##### 10. artikulua

a) Helburuak: Udalerria sustatzeko eta udalerrriaren berri emateko programak eta jarduerak egitea, turismoa sustatzeko jarduerak gauzatzea.

b) Lortu nahi direnak: Herritarrek eta udalerriko eta inguruko sektore ekonomikoek gizarte eta aisialdi ekimenak antolatzen parte hartzea eta horiek dinamizatzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 1.000,00 euro urtean, 2.000,00 euro plan honen indarraldian zehar.

d) Finantzazioa: Funts propioen eta beste erakunde publiko batzuen funtsen bidez egingo da, udal aurrekontuaren laugarren kapituluaren 432. programaren kontura.

#### VII. kapituluua. Administrazioekin eta gainerako erakundeekin lankidetzan egingo diren diru-laguntzak

Administrazio eta erakundeekiko lankidetzak alorrean udalak plana indarrean dagoen bitartean honako diru-laguntza edo lankidetzak lerroak ezarriko ditu beste erakunde publikoekin, besteak beste Arabako Lautadako Kuadrillarekin, Administrazio Batzordeekin, Entziako Partzuergoekin eta udalekin.

##### 11. artikulua

a) Helburuak: Beste administrazioekiko lankidetzak sustatzea, partekatuta betetzeko interes publikoko beharrak, eta udalarentzako eraginkortasuna eta ekonomia gehitzeko. Aurrekontu aplikazio garrantzitsuenak udalerriko kontzejuei egindako ekarpena eta Arabako Lautadako Kuadrillaren ekarpena dira.

b) Lortu nahi direnak: Herritarren dinamizazioa eta parte-hartzea eta interes publikoko beharrak eta zerbitzuak betetzea.

c) Aurreikusitako kostuak: Udaletxeek 147.129,33 euro urtean, 200.000,00 euro plan honen indarraldian zehar. Arabako Lautadako Kuadrillak 56.347,88 euro urtean, 110.000,00 euro plan honen indarraldian zehar. Entziako Partzuergoak 5.500,00 euro urtean, 10.000,00 euro plan honen indarraldian zehar. Udalei, Arabako Foru Aldundiari eta beste erakundeei egindako

ekarpenak, 43.982,96 euro urteko zerbitzuengatik, 87.000,00 euro plan honen indarraldian, eta hori guztia bateragarria izango balitz aurrekontu egonkortasun eta gastu mugapen helburuekin.

d) Finantzazioa: Funtz propioekin egingo da, udaleko aurrekontuetako laugarren kapituluan jasotakoekin, baita beste erakunde publikoetako funtsekin ere.

#### VIII. Kapituluua. Planaren kontrola eta ebaluazioa

##### **12. artikulua**

Alkateak kontrolatuko du plan hau betetzen den, indarrean den bitartean, eta udalbatzari emaitzen berri emango dio.

##### **13. artikulua**

Planaren indarraldia amaitutakoan, hurrengo plana egin aurretik, eta gutxienez urtean behin, alkateak memoria aurkeztuko dio udalbatzari planen eguneratzearekin; bertan, gutxienez, hauek agertuko dira: planaren betetze maila; diru-laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia, lortu nahi ziren helburu eta ondorioei dagokienez; eta ondorioak, hurrengo diru-laguntzen plan estrategikoa sortzeko iradokizunak proposatuta.

Erdoña, 2019ko otsailaren 28a

*Alkatea*

*DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO*

## ERANSKINA

## 1. KULTURA/KIROL ETA GIZARTE GAIAK PLANIFIKATZEKO ZERBITZUA

| ZK.  | DIRUZ LAGUNDUKO DEN GAIAREN DESKRIBAPENA  | ONURADUNA   | EMATEKO MODUA                              | HELBURUA   | AURREKONTUA 2019              | APLIK.    |
|------|---|---|--|--|-------------------------------|-----------|
| 1.1  | Administrazio batzordeen eta kultura jardueren diru-laguntzak kultura sustapena.                | Udalerriko kontzejuk  | Diru-laguntzak deialdiaren arabera         | Kultura jarduerak kudeatzeko lankidetzak   | 7.000,00                      | 33443400  |
| 1.2  | Administrazio batzordeen diru-laguntzak, kultura jarduerak, jaiak                               | Udalerriko kontzejuk  | Diru-laguntzak deialdiaren arabera         | Herriko ikuskizunak eta jaiak kudeatzen eta antolatzen laguntza ematea   | 14.500,00                     | 338343000 |
| 1.3  | Kirol elkarteei, klubei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak ematea kirol jarduerak antolatzeko | Club deportivo Adana F. S. G.   | Diru-laguntzak zuzeneko emakida hitzarmena | Udalerrian eta kanpoan kirol programa eta jardueretan laguntzea  | 1.000,00                      | 341482002 |
| 1.4  | Kirol elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak ematea kirol jarduerak antolatzeko         | Durruma-San Roman bolo taldea   | Diru-laguntzak zuzeneko emakida hitzarmena | Udalerrian eta kanpoan kirol programa eta jardueretan laguntzea  | 1.000,00                      | 341482002 |
| 1.5  | Kirol elkarteei, klubei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak ematea kirol jarduerak antolatzeko | Kirol elkarteak, klubak eta pertsona fisikoak   | Diru-laguntza, deialdia                    | Udalerriko kultura eta kirol jarduera eta programetan parte hartzea onuradun ezberdinek  | 1.600,00                      | 341482002 |
| 1.6  | Elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak ematea kultura jarduerak antolatzeko             | Elkarteeak, pertsona fisikoak   | Diru-laguntza, deialdia                    | Udalerriko kultura jarduera eta programetan parte hartzea onuradun ezberdinek  | 1.400,00                      | 334482000 |
| 1.7  | Elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak ematea kultura jarduerak antolatzeko             | Kataliturri Abesbatza Elkartea  | Diru-laguntzak zuzeneko emakida hitzarmena | Udalerriko kultura eta kantu jarduera eta programetan laguntzea  | 600,00                        | 334482000 |
| 1.8  | Garapen lankidetzarako diru-laguntzak   | Gobernuz kanpoko erakundeak, pertsona fisikoak edo juridikoak, irabazi asmorik gabekoak | Diru-laguntzak deialdiaren arabera         | Proiektuetan eta lankidetzan laguntzea   | 10.178,88                     | 231481002 |
| 1.9  | Lankidetzak diru-laguntza   | Euskal Fundazioa  | Zuzeneko diru-laguntza deialdiaren arabera | Garapen bidean dauden herrialdeen lankidetzak proiektuei laguntzea   | Zehazteko deialdiaren arabera | 231481002 |
| 1.10 | Lankidetzak diru-laguntza   | Elikagai bankuak  | Zuzeneko diru-laguntza deialdiaren arabera | Erakundearen jarduera gauzatzeko laguntzea   | Zehazteko deialdiaren arabera | 231481002 |
| 1.11 | Musika eskolekin hitzarmena   | Donemiliagako Udala eskualdeko musika eskolekin   | Hitzarmena transferentzia                  | Musika ikasketak sustatzea, udalekuak  | 900,00                        | 334422002 |
| 1.12 | Erromeria Barria hitzarmena   | Narbaxako Udala   | Hitzarmena Transferentzia                  | Jai tradizional batean-erromerian herritarren parte hartzea sustatzea eta ahalbidetzea   | 2.000,00                      | 334434000 |
| 1.13 | Mural tailerra  | Werckmeister s.l.   | Hitzarmena, faktura ordaintzea             | Gazteen eta herritarren parte-hartzea eta lankidetzak sustatzea  | 6.500,00                      | 334226006 |
| 1.14 | Gizarte larrialdiko funtsak   | Askotarikoak  | Zuzeneko emakida                           | Gizarte beharrak jorratzea   | 300,00                        | 231481003 |
| 1.15 | Pintura eta argazkigintza lehiaketa   | Askotarikoak  | Lehiaketa deialdia, lehia askea            | Udalerrian artearen garapena ahalbidetzea eta sustatzea eta herritarrek parte hartzea eta udalerrira ezagutaraztea bultzatzea      | 2.000,00                      | 334482001 |
| 1.16 | Laguntza familiei, pertsona fisikoei  | Askotarikoak  | Diru-laguntzen deialdia                    | Musika ikasketak sustatzea eta bultzatzea  | 3.000,00                      | 326482001 |
| 1.17 | Irabazi asmorik gabeko erakundeak   | Eusko-lkaskuntza  | Zuzeneko emakida                           | Erakundeak udalerrian ematen dituen jardueretan, zerbitzuetan eta prestakuntzetan lankidetzak sustatzea. Bazkideen kuota ekarpenak | 200,00                        | 334481000 |
| 1.18 | Arabako Lautadako Kuadrilla, Gizarte Sustapena  | Arabako Lautadako Kuadrilla   | Transferentzia                             | Gizarte sustapeneko jardueretan laguntzea  | 100,00                        | 231421004 |
| 1.19 | Arabako Lautadako Kuadrilla, eskola agenda  | Arabako Lautadako Kuadrilla   | Transferentzia                             | Eskola agendarekin lotutako jarduerak eta jarduketetan laguntzea   | 130,00                        | 320421001 |



## 2. GIZARTE EKONOMIA/EMAKUME/BERDINTASUN/UME/NAGUSIEN PLANIFIKAZIO ZER-BITZUA

| ZK.  | DIRUZ LAGUNDUKO DEN GAIAREN DESKRIBAPENA                     | ONURADUNA                                    | EMATEKO MODUA                                   | HELBURUA   | AURREKONTUA 2019 | APLIK.    |
|------|--|--|---|--|------------------|-----------|
| 2.1  | Nekazaritza ustiapenak                                       | Udalerriko partikularrak                     | Diru-laguntzak ordenantzaren arabera            | Udalerriko biztanleen nekazaritza garapenari laguntzea   | 1.800,00         | 414782001 |
| 2.2  | Eraikinak  | Udalerriko partikularrak                     | Ordenantzaren arabera diru-laguntza             | Udalerriko eraikinak eraberritzea eta kontserbatzea sustatzea eta horretarako laguntzak ematea                                     | 2.000,00         | 150780001 |
| 2.3  | Familiei laguntzak ematea umeak jaiotzen badira              | Udalerriko partikularrak                     | Deialdi bidezko diru-laguntzak                  | Udalerrian familiei laguntzea eta familiekin lankidetzan aritzea   | 500,00           | 231480001 |
| 2.4  | Berdintasun politikak- Arabako Lautadako Kuadrilla           | Arabako Lautadako Kuadrilla                  | Transferentzia                                  | Arabako Lautadako Kuadrillak berdintasun helburuekin egindako jardueretan udalerririk parte hartzea                                | 983,67           | 231421002 |
| 2.5  | Arabako Lautadako Kuadrilla – emakumeekin lotutako jarduerak | Arabako Lautadako Kuadrilla                  | Transferentzia                                  | Arabako Lautadako Kuadrillak indarkeria prebenitzeko eta sentibilizazio helburuekin egindako jardueretan udalerririk parte hartzea | 150,00           | 231421003 |
| 2.6  | Virgen Sallurtegui erretiratuaren elkarte                    | Virgen Sallurtegui erretiratuaren elkarte    | Diru-laguntza deialdia. Zuzeneko emakida        | Nagusien jarduerak garatzea eta horiekin lankidetzan aritzea   | 550,00           | 231481000 |
| 2.7  | Santa Isabel-Adana- erretiratuaren elkarte                   | Santa Isabel de Adana erretiratuaren elkarte | Deialdi bidezko diru-laguntza, zuzeneko emakida | Nagusien jarduerak garatzea eta lankidetzan aritzea  | 850,00           | 231481000 |
| 2.8  | San Vitor Alegria erretiratuaren elkarte                     | San Vitor erretiratuaren elkarte             | Deialdi bidezko diru-laguntza, zuzeneko emakida | Nagusien jarduerak garatzea eta horiekin lankidetzan aritzea   | 550,00           | 231481000 |
| 2.9  | Araiki Atzoko Gasteak erretiratuaren elkarte                 | Atzoko Gasteak erretiratuaren elkarte        | Deialdi bidezko diru-laguntza, zuzeneko emakida | Nagusien jarduerak garatzea eta horiekin lankidetzan aritzea   | 550,00           | 231481000 |
| 2.10 | Eguneko zentroak   | Eskualdeko udalak                            | Hitzarmena                                      | Udalerriko nagusiei arreta ematea  | 2.700,00         | 231422001 |
| 2.11 | Udaltalde Tokiko agenda 21                                   | Udaltalde Tokiko agenda 21                   | Hitzarmena Zuzeneko emakida                     | Erakundeak udalari kuota soziala ordaintzea eta Tokiko agenda 21eko jarduerak  | 300,00<br>700,00 | 170221991 |
| 2.12 | Entziako Partzuergoari ekarpena                              | Entziako Partzuergoa                         | Transferentzia, zuzeneko emakida                | Partzuergoa hobetzea eta garatzea eta gastuetan lankidetzan aritzea eta jarduketan gauzatzea                                       | 5.500,00         | 943421002 |
| 2.13 | Hezkuntza zentroi ekarpena                                   | Asparrena, Agurain eta Dulantziko udalak     | Transferentzia                                  | Hezkuntza zentroak mantentzeko gastuak (udalari dagozkionak)   | 30.000,00        | 323422000 |
| 2.14 | Araztegirako ekarpena  | Asparrenako Udala                            | Transferentzia                                  | Industrialdeko araztegi gastuak (udalari dagozkionak)  | 100,00           | 166422001 |
| 2.15 | Administrazio Batzordeei ekarpena                            | Udalerriko kontzejtuak                       | Deialdiaren arabera diru-laguntza               | Hiriko altzariak eskuratzeko eta hobetzeko gastuak   | 10.000,00        | 943434000 |
| 2.16 | Industrialderako ekarpena                                    | Asparrenako Udala                            | Hitzarmena                                      | Industrialderako gastuak (argia, kaleak, eta abar).  | 10.500,00        | 943422001 |
| 2.17 | Ekarpena Asparrenari   | Asparrenako Udala                            | Izapidetze akordioa                             | Albeizek parte hartzea Entziako Partzuergoaren sarreretan  | 1.000,00         | 943422002 |
| 2.18 | Administrazio Batzordeei ekarpena                            | Udalerriko kontzejtuak                       | Deialdiaren arabera diru-laguntza               | Gastu orokorretan lankidetzan aritzea eta urteko inbertsioa  | 132.129,33       | 943434001 |
| 2.19 | Hirigintza erakundeari ekarpena                              | Hirigintza erakunde Okiturri kontserbazioa   | Transferentzia                                  | Erakunde gastuak, bertako kuotaren ondorioz  | 900,00           | 150481002 |
| 2.20 | Gipuzkoako eta Arabako partzuergoari ekarpena                | Gipuzkoako eta Arabako partzuergoa           | Transferentzia zuzeneko emakida                 | Partzuergoa hobetzea eta garatzea eta gastuetan lankidetzan aritzea eta jarduketan gauzatzea                                       | 500,00           | 943421003 |
| 2.21 | Turismo hitzarmena   | Arabako Lautadako Kuadrilla                  | Transferentzia                                  | Udalerriko eta Arabako Lautadako Kuadrillaren sustapen turistikoa  | 1.000,00         | 432421001 |
| 2.22 | Apota mendiko ekarpena                                       | Asparrenako Udala                            | Transferentzia                                  | Apota mendia hobetzea, % 50eko jarduketak  | 150,00           | 170422001 |
| 2.23 | Txakur zerbitzuaren hitzarmena                               | Arabako Foru Aldundia                        | Hitzarmena                                      | Udal zerbitzuak hobetzea eta lankidetzan aritzea   | 150,00           | 311420001 |

| ZK.  | DIRUZ LAGUNDUKO DEN GAIAREN DESKRIBAPENA        | ONURADUNA   | EMATEKO MODUA   | HELBURUA  | AURREKONTUA 2019 | APLIK.  |
|------|---|---|---|---|------------------|---|
| 2.24 | Arabako Lautadako Kuadrillako Zerbitzuak        | Arabako Lautadako Kuadrilla   | Transferentzia  | Udal zerbitzuak hobetzea eta herritarren zerbitzuari ekarpena egitea                        | 56.347,88        | 421001 partida Programak: 150, 1621, 170, 231, 241, 330, 3322, 942<br>421002 partida Programak: 330, 1621<br>421003 partida Programak: 338<br>421002 partida 170 programa |
| 2.25 | Eudel euskal udalerrien elkarte                 | Eudel   | Hitzarmena, zuzeneko emakida                          | Udal elkartearen finantzazioa   | 682,96           | 912 481005  |
| 2.26 | Araztegi zerbitzuaren gastuetarako ekarpena     | Udalerriko kontzejtuak  | Diru-laguntza edo transferentzia, deialdiaren arabera | Udalaren araztegi zerbitzuaren gastuetan laguntzea  | 4.500,00         | 166434000   |
| 2.27 | Hondakinen praktika onen lanen transferentziak  | Udalerrien elkarte  | Transferentzia, zuzeneko emakida                      | Hondakinen praktika onetan laguntzea  | 1.000,00         | 1622481000  |
| 2.28 | Eraikinen ikuskapen teknikoko gastuen laguntzak | Udalerriko familiak   | Transferentzia, laguntzen deialdiaren arabera         | Eraikinen lan eta ikuskaritza teknikoko gastuak   | 3.000,00         | 150482001   |
| 2.29 | Arabako Lautadako Kuadrilla                     | Arabako Lautadako Kuadrilla   | Transferentzia  | Herritarren parte hartzerako gastuak  | 630,37           | 920421001   |
| 2.30 | Udalekin hitzarmenak-udalekuak                  | Asparrenako Udala, Barrundiako Udala, Dulantziko Udala, Aguraingo Udala | Hitzarmena, transferentzia                            | Udalerriko umei zuzendutako jardueretan parte hartzea eta umeen arteko harremanak sustatzea | 600,00           | 334422002   |

### 3. EUSKARA PLANIFIKAZIO ZERBITZUA

| ZK.  | DIRUZ LAGUNDUKO DEN GAIAREN DESKRIBAPENA                    | ONURADUNA   | EMATEKO MODUA                                   | HELBURUA   | AURREKONTUA 2019 | APLIK.    |
|------|---|---|---|--|------------------|-----------|
| 3.1  | Euskara ikasteko diru-laguntza partikularrak                | Donemiliagako biztanleak                          | Diru-laguntzak deialdiaren arabera, Lehia askea | Euskara ikasketentzako diru-laguntzak ematea udalerriko bizilagunei        | 2.000,00         | 335482000 |
| 3.2  | Arabako Lautadako Kuadrillako Zerbitzuak Euskara teknikaria | Arabako Lautadako Kuadrilla                       | Transferentzia                                  | Euskara teknikari zerbitzuen ekarpena                                      | 759,49           | 335421001 |
| 3.3  | Arabako Lautadako Kuadrillako Zerbitzuak                    | Arabako Lautadako Kuadrilla                       | Transferentzia                                  | Euskara EBPN planaren ekarpena   | 500,00           | 335421002 |
| 3.4  | Arabako Lautadako Kuadrillako Zerbitzuak                    | Arabako Lautadako Kuadrilla                       | Transferentzia                                  | Euskara jarduerentzako ekarpena  | 1.050,00         | 335421004 |
| 3.5  | Arabako Lautadako Kuadrillako Zerbitzuak                    | Arabako Lautadako Kuadrilla                       | Transferentzia                                  | Itzulpen zerbitzurako ekarpena   | 178,00           | 335421003 |
| 3.6  | Udalbiltza  | Udalbiltza  | Hitzarmena, zuzeneko emakida                    | Elkartearen finantzazioa eta lankidetzako udaleko euskararen garapenarekin | 1.000,00         | 912481003 |
| 3.7  | Erakunde euskara sustapena                                  | Araba Euskaraz                                    | Zuzeneko emakida                                | Arabako ikastoletan euskararen erabilera sustatzea                         | 750,00           | 335481004 |
| 3.8  | Euskal Herriko ikastolentzako laguntzak                     | Seaska-Ipar Euskal Herriko ikastolen federakuntza | Zuzeneko emakida                                | Funtzionamendu gastuetan eta euskara garatzeko gastuetan laguntzea         | 750,00           | 320481000 |
| 3.9  | Erakunde euskara sustapena                                  | AEK-Korrika                                       | Zuzeneko emakida                                | Euskararen erabilera sustatzea   | 1.500,00         | 335481004 |
| 3.10 | Erakunde euskara sustapena                                  | Olbea Euskaldunon Elkarte                         | Zuzeneko emakida                                | Laguntza ematea, LAUTADAN 11 EGUN EUSKARAZ                                 | 2.127,00         | 335481004 |